




BIZIA SORTZEN, HAZTEN, GARBITZEN



Doinuaren eta bertsoaren berri

Doinua eta bertsoa 2023ko pastorean plazaratu zen, Sohütako herriak eginiko obra antzeztuan (Zuberoa). Pastoral Jean Louis Davant euskaltzainak idatzi zuen (1935 Ürrüstoi-Larrabile, Zuberoa) eta René Cassin politikari eta legelariaren bizialdia azaltzen du.

René Cassin (1887 Baiona, Lapurdi - 1976 Paris, Frantzia) izan zen II. Mundu Gerraren ostean Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren moldatzaile nagusia. 1968an Nobel Bake saria eman zioten.

Bertso hau, pastorean, "Emazteen gerla" atalekoa da.

Bizia sortzen, hazten, garbitzen eta berotzen **etxean**.
Iheslaria gorda sabaian, opila pausa **labe**an.
Presonerari koli bat igor, gizon-lana har **elge**an.
Zaharrak arta, haurrak eraiki, makiak haz **bordalde**an.

